

1902-ko Agorraren 28-an

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO CHIT GOITUAREN AURREAN

AITA F. MANUEL UMEREZ-EK

Meza nagusian egintako

S E R M O Y A

Oñatiko eleizan



Tenete traditiones quas didicistis.

Ikasitako otzedagoak zaitirandu itzatzute.

*S. Pablo, Thesalon, II
cap. 2-18*

Diputadu jaun errespetagarriak eta gañerako euskaldun anai biotzekoak:

Gizonak ez du beñere obeto ezagutzen bere argaltasuna, eginkizun aundi bateri asiera ematen dionean baño. Eta eginkizun aundia da eleiza au betetzen duan jende argi eta jakintsuaren aurrean bear bezela itz egitea; lan aundia da igarotako denborak, kondairaren laguntzarik gabe, argidoratuta begien aurrean jartzea; neketsua, zalla eta askoren iritzian, ezin ditekean gauza, milla aldetatik puskatua dagoan Euskal-erriko erlijioaren kondaira-katea, batu eta elkartzea.

Ni erri chikitako guchi dakiten jendeai bakarrik predikatzen oitua, adimentu illunarekin eta kondairaren ezagueran oso atzian nagoana, gure erriaren erlijiozko kondairaren gañean itz egiteko asmoa bada-karkit ere, ez daukat esan bearrik, gaurko festak eskatzen duan bezelako sermoi bat egiteko konfiantzarik gabe natorrela.

Zuen onginyak, zuen biotz barkakoyak indartu eta bandatzen nau, bada berari zor diot gaur pulpitu santu onetatik ainbeste jendei itz egitea ere. Guztiok dakigu gaur emen ikusten degun mugimentuaren arrazoya, zergatik ikusten dan eleiz onetan ainbeste arpegi berri:

euskal-festen berriak, zabaldurik Probintzi guztian, tronpetaren soñua bezela, bildu ditu erri onetan Euskal-erriaren alde guztietako jendeak.

Emen agiri da zenbat nai dien euskaldunak beren lege eta oitura zarrai. Miragarria da euskal-erriaren izan-era: beste erriak utzi dituzte eraki zarrak, onek gordetzen ditu begirunerik aundienakin; besteak aurrera, beti aurrera begira dauden artean, gure erriak atzera begiratzen du, asko estimatzen zuan gauza bat galdu duanak bezela. ¡A! baña jakin bear dezute zergatik. Urteak asko erakusten die zarrai: zarrak ez dira gazteak aña poztutzen gauza berriakin, eta beste erriak gurearen aldean oraindik umeak dira: gure erria aundia zan, besteak oraindik jayo etziranean; gure erria aurreramena azkeneko mallan zegoan, besteak aurrenekoari ozta ozta ukitzen ziotenean: gure erriaren jayotzako agiria ez du inork oraindano arkitu: aurreneko denboren lañopean ezkutatua dago.

Euskaldunak ez die jarraituko bide berrietatik dijoazenai; bere gurasoakin elkartasuna gorde nai du, ez ditu mespreziatuko aurrekoen ikasbide ederrak, eta askoren damuz bada ere, oitura zarrak leyalkiro zaitiraundu eta bere kondaira garbiaren urrezko katea mallarik galdu gabe iduki nai du: eta naitasun onen siñalerik argiena, da urtero egiten diran euskal-festa oyek.

Baña gure aurrekoak utzi zizkiguten oitura on eta ikasbide ederraren artean, bat da onena eta ederrena; gure kondaira guztian arkitzen deguna; gure jakintsuen eta gizon portitzen bizitzak gainlorratzen dituana eta Euskal-erria guztiz goyan, bere mendiak baño ere gorago jarri zuana: ikasbide eder au da Erlijioa. Erlijioa da gure zoriontasunaren zimendua: au galduko balitz, galduko litzake ere euskaldunen izen ona, aurreramen guztiak alde egingo lukete gugandik. 6 mendi bedeinkatu oyek, orain jende onaren bizi-lekua, giza char, jende gaizto, lapur eta beste gaizki-egilleen bizi-lekuan biurtuko lirake, eta ezin biziko litzake emen inor.

Arrazoi asko dauzka Sada euskaldunak erlijioa ez uzteko, baña gaur funtzio onek eskatzen duan bezela, bat bakarra adierazi nai dituztet. Jakiña da euskal-festa oyek berritu zituanaren asmoa; festa oyek berritu ziran, aurrekoak erakutsitako gauza onak aztu ez ditezen: eta emendik artuko det nik ere nere sermoyaren gaya: adierazi nai nuke aurrekoetatik datorkigula erlijio-dunak izatea; beti gorde diotela euskaldunak leyaltasuna Jaungoikoari: Denbora guztietan izandu dala euskal-jendea erlijio-duna.

Baña aurrena belaunikatu gaitezen Jaunaren aurrean, eta eskatu deyogun bere grazi eta laguntza Maria chit santaren bitartez esanaz berari aingeruarekin: *Ave María*.

Tenete traditiones quas didicistis.

Ikasitako otzedagoak zaitirandu itzatzute.

S. *Pablo. Thesalon, II, cap. 2-18.*

I

Gizona ez bakarrik da gorputza, baizik da bai eta ere anima; batak eta besteak osatzen dute gizona: da zeruaren eta lurraren irudi chiki bat bezela: da Jaungoikoaren eskuetako obra guziak gordetzen dituan kucha bezela. Gizonak bada animaren aldetik dauka parte espirituen aunditasunean, eta gorputzaren aldetik lurraren chikitasunean. Au ikusten da chit ederki Jesukristo gure Jaunaren itz oyetan «gizona ez bakarrik bizi da ogiyarekin».¹ Etzayo naikoa gizonari lurreko janaria, ez du bukatzen bere egitekoa jayoarekin, azi eta geitzearekin; ez, bere espiritua ezagueraren laguntzan egaratzen da urrutietara, uzten dituala oso atzera eta bean arrano eta izarrak berak ere: bere kutziak billatu nai lukete betikotasuneko toki artan, espiritu illezkor guziak opatzen duten zorion bat; baña zorion egiazko bat: ezagutzen du gauza altsuren batean sinistu bearra, zein dan bere esperantza guziak gozatzuten dituana: bere pauso denak daramazki goaldera; bere begiak zerruan josita, era berean mezipreziatzen duala oñazpian zapaltzen duan lurra eta on al guzia egiten gure Jesus maisu jakintsuak igaro zuan bezela bere bizitza. Egiteko au utzi zion gizonari silluakin jota bezela bere biotzean. Izanik bada egi bat gauza guziak dirala egiñak gizonentzako eta gizona Jaungoikoarentzako: munduaren izatearen arrazoya erlijioa bada, eta fedea sortitzgarayan;² gizonaren biotzean arkitzen bada elkartasun aïñ aundia fedearekin, erlijioak iraungo du munduak irauten duan artean, ez bada lenago biurtzen zero eder batean, eta miserizko lur au betikotasuneko gozarnenetan.

Alferrik federik gabekoen alegiñak deserritzeko mundutik beste bizitzako zorionaren sinismena, zergatik purrukakutuko diran Jaun-

(1) San Mateo, cap. IV, v. 4.

(2) Sobrenatural.

goikoak gizonaren biotzean ipini duen indar errutsuaren kontra. Ez dago ez asmazio, ez agindu eta ez promes goroenak izanagatik ere, iritziko dutenik gizonen biotz guziak arrastatzea. Baditeke *idea listen* eskolaren bat arkitzea, baña eskola orretako irakastea ez da sartuko beñera errian: baditeke batzoen batzuek poztutzea gauza guzietanduen berdintasuna erakusten dutenen aginduakin, baña ez du garaituko munduan: baditeke arkitzea federik gabekoren batzuek, baña ez dute arkituko erri bat bakarra fede gabea. Orregatik zion Zizeron batek «ezdagoala erreñurik gizonen artean illunena izanarren ez gutzen ez duana, zein Jaungoikori ez badaki ere, bateri beintzat bear diola eman adorazioa.¹ ¿Eta izango zan Euskal-erria bere aurreneko denboretan ezaguera au gabea? ¡al onela pentsatzea bakarrik, iruditzen zait dala ofentsa bat egitea gure erriari. Kontrara Euskal-erria izandu da, ebreo erriakin edo Jaungoikoaren erri siñalatuakin bakidanderik² gabe, gorde izan duana beti egiazko Jaungoikoaganako amorio aparteko bat, eta au Ebanjelioa munduan zabaldu baño lenago. Gure Euskal-itztegiko itz batek bakarrik indartzen du egi au. Itz au da, itzik ederrena, itzik aundiena, itzik gozoena: da itz bat, ez gizonak asmatua baizik zerutik etorria; da itz bat gure euskal-izkuntza illezkortzen duana; itz bat Jesukristoren ikasleak berak begirunea gorde ziotena; itz bat ogei gizaldi eta geyagoan gerta izan oi diran gorabere-etan gain-bizitu izan dana eta munduko olatu aserratuetatik libratu-rik, guganaño etorri zaiguna aurrekoen primeza bezela; eta gogarp³ bat bezela gure aurrekoak idoloen adoratzalleak izandu zirala esaten dutenen kontra: itz bat zein billersitua⁴ ikusten da argiro, gure guraso zarrak etzutela ezagutzen gauza guzien egille bat baño, etzute-la ere idolorik eta guchiago zirala auspeztu beñere, lurreko gauzen aurrean: itz garbi, itz eder eta altsu, itz zerutar ori da, Jaungoikoa, goyetako jauna.

Itz au da guzia esaten duana eta gure izkuntza zarrean beñere galdu gabe zutik iraun duana: itz au da zerutik etorri zitzayona Euskal-erriari, eta euskaldunak beti maite izan dutena, beren egiazko Jaungoikoarena bezela. Asko det jakitea, Apostoluak berak ere, begirune aundiakin begiratzen ziotela itz oni, zerutik etorria dala esateko.

(1) Ciceron de Legibus, lib. II, cap. VIII.

(2) Comunicación.

(3) Protesta.

(4) Examinada.

Ez antziñako arrizko talluntzeen¹ billa dabiltzanak arkitu dezakete ezercho ere, egi onen kontra. Gure mendietan idoloen arrasturik ezak indartzen gaitu geyago eta geyago sinistatzera eta aitortzera gure gurasoak adoratzen zuten Jaungoikoa, zala Jaungoiko egiazkoa. Arrazoi onek begiratze batean ukatia² badirudi ere, artzen du bayezkoen indarra begiratzen badiogu beintzat euskaldunen margoari,³ zein beti izandu dan bere otzedagoen gordetzalle leyala eta era berean oyen nastzalleenetsaya. Ez badegu arkitzen Ebanjelio santua gure Euskal-errian zabaldu zaneko kondairarik, estaliak badaude gure Apostoluen izenak, emen izan ez badira martiririk eta ez bazan ere kristauen odollezko errekarik azaldu, ez badegu Gurutzetuaren ikasleak billatu zuten gogortasunen berririk, ikusten badegu gure Euskal-erria amargarren gizalditik diztiazten kristau-balleran,⁴ guzia izandu zan gure mendiak prestatuak zeuzkalako Jaungoikoak gure biurtzea kristautasunera izan zedin al zan biguñ eta gozoena; alako moduz eze, Apostoluak zeramaten guruzkoya⁵ izan zedilla euskaldunak beren *Lauburun* begirunetzen zuten bandera bezela, uzten ziela ayek gordetzen Jaungoikoaren izena. Ebanjelioaren zabaltzalle aurrenekoak bada, izandu ziran etartuak⁶ gure artean adiskide eta lagunak bezela, gure aurrekoak gordetzen zuten erlijio beraren dotriñak geyago indartzera zetorzkigutenak bezela. Eskerrak gure Euskal-erriaren prestaera ederrari, chimista baten azkartasunakin zabaldu zan gure artean kristautasuna batere bulla eta gogortasunik gabe Baña iñoiz gure menditarreetan ezagutu izan balitz idolorik, arkitu izan balira gezurrezko erlijioaren itzalpean egindako ondasunik; izandu balira iñoiz gure artean Ebanjelio santuaren dotrinakin elkartzen ez ziran oituraen batzuek, bai ezik⁷ gabe etorriko ziran gure aditzera nai irakurgai edo ipuyak bezela eta botako zuten beren sustraya, gure artean, beste denbora batean *maitarri* eta *sorgiñak* Akelarren idukitzen zituzten batzarretako kontuak etorri zitzaizkigun bezela, zeintzuek orain lau gizaldi desagertu ziran. Lotsa eta beldurrik gabe esan dezakegu bada, erlijio

-
- (1) Esculturas.
 - (2) Negativo.
 - (3) Carácter.
 - (4) Catolicismo.
 - (5) Divisa.
 - (6) Recibidos.
 - (7) Duda.

berezarrak,¹ prestatu ziola bidea emen, erlijio izetagarayari² etabartetik besterako pausoa, gertatu zala pake eder batean; eta ez beste erri batzuek bezela, gorrotatzen zutela nai eta nai ez, lenago adoratzeko zuena, eta adoratzeko zutela lenago gorrotatzeko zuena.

II

Eta zer garaitan edo denboran ipiñi bear da Euskal-erriaren biurtzea kristauen erlijiora? Ez dauzka kondairagilleak orain artean, naiko lituzkean argitasunak segurantza guziakin esateko, noiz izandu zan biurtze ori. Eta ezintasun orren arrazoya, orain bertan azaldu det. Euskal-erriaren biurtzea izan zan ain berestarra eta paketsua, nun ez duan utzi arrasturikan ere. Baña gure erriaren izen onagatik bear degu desegin, biurtze ori amar-garren gizaldiaren erdirutzaraño, atzeratunai dutenen arrazoi arrazoigabea; bada onetarako badira arrazoi chit agiriak ayen kontra. Esan det, erriaren onagatik bear degula desegin, arrazoigabekoen arrazoya; eta ala da egiaz. Jaungoikoa ez da poztutzen erlijio eta adorazio ugaritan. Erlijioa, egia bezela da bat bakarra: orregatik Jaungoikoak apaindu du erlijio egiazkoa, aparteko doai eta siñaleakin; egiten duala besteakin nastu ezin ditekeana. Jaungoikoaren borondatea emen agirian dago. Edozeiñ moduzko adorazio eta erlijio guzitakoak onak bezela etartzea,³ da pekatu izugarri bat. Erlijio batean nola bestean bizitzeko prestatzen danak, ematen du aditzera ez dituala ezagutzen Jaungoikoaren dagokindeak,⁴ eta gauza guzien egilearen eta bere kriaturen artean dagoan elkartasuna. Ez dira iñoiz erori erriak onelako uts egite nazkagarrian: gure erria beti eta denbora guzietan izandu da fededuna, eta bere aldare santuen alde, leyal jarraitu duana.

Iñoiz gizon jakintsuren bat aza tzen danean Jaungoikoaren izenean dotriña ez-ezagunak predikatzen, eta gañera inguratzen badute doai apartekoren batzuek, orduan erriak adoratzeko du eta jarraitzen dio itu itsuan; naiz bere siñaleak ez izan egiazko Jaungoikoaren bialdu batenak. Profeta gezurrezko eta oitura berritzalle batek baño geyagok,

(1) Natural.

(2) Sobrenatural.

(3) Recibir.

(4) Atributos.

arrapatu izan oi diote erriari bere siniste ederra. Erria bada arrastatu eta bereganatzen du nai eta nai ez bezela, izetagarayak, ofenditzen duan bezela egobia¹ erlijiosoak. Eta au onela izanik ¿sinistu diteke euskaldunak egongo zirala amargarren gizaldiraño, erlijioan sartu gabe? ain urrutira zeuden euskaldunak garai artan, ez jakiteko beste errietan zer gertatzen zan? Jakiten bazuten beste erritan zer gertatzen zan, eta baldin bazuten ingurutako erlijio egiazko baten berria, zeñagatik mi-llaka martirik beren biziak eman zituzten eta zabaldu izan ziran beren egille Jainkozkoaren eta ikasleen ainbat gauza arrigarrizko: gauza oyen guzien jakiñean arkitzen baziran euskaldunak, jakin bear zuten beze-la, bada guzia gertatzen zitzaizten beren atayetan ¿nola etzitzayen etorri gogora milla urte ayetan, erlijio ura egiazkoa izan zitekeala, eta beraz Jaungoikoaren gogokoa berarekin laztantzea? Pentsamentu au etorri bazitzayen, eta siñale miragarrizko ayetan ikusten bazuten Jaungoikoaren borondatea ¿aiñitsuak eta illunak ziraden gure gurasoak ez jakiteko, beartuaatkitzen zala gizona Jaungoikoaren borondateari jarraitzera, beifñ ura ezagutu ezkeru? ez deizkiot eta bakarrik itz egin dezakete beste aldera, gure erria erlijiozko mugimenturik gabe, ikusi naiko luketenak.

Gure gurasoak arreta geiago ipini oi zuten obrazko kondaira bat egiten guri uzteko, izkribatutako kondaira baño; beren alegiñak geyago izandu ziran, aurreneko denborak geroztikoakin elkartzeko bitarterik utzi gabe, ari puskatu gabea bezela; eta ez aizeak eraman edo zere-nak desegin ditzakean paper orritan. Obrazko kondaira orrek badaesaten digu, amargarren gizaldian arkitzen zirala gure Euskal-errian kristau eleizak, eta ez azaltzen eleiza oyen egilleen izenen arrasturik, esan de-gun gizaldia baño lenagokoak bear zuten izan ayek: eta au sinisteko arrazoyak dauzkagu. Tertulianok bere izkribatuetan zion, irugarren gizaldian; bere denbora ayetarako Españiaren azkeneko bazterreraño, zabaldua arkitzen zala kristauen erlijioa. Prudentziok laugarren giza-dian Emeterio eta Zeledonio martiri santuen ondran egin zituan bertsoetan, itz egiten du lenagoko euskaldunen fedegabetearen² ga-ñean; *bruta quondam Vasconum gentilitas*. Eta Zaragozako apaiz-piku³ Braulio santuak izkribatu zuan San Millan Kogullakoaren bi-

(1) Indiferencia.

(2) Gentilidad.

(3) Obispo.

zitzan, zein bizi izan zan bostgarren eta seigarren gizaldietan, dio, juten zitzayola jendea gure erriyetatik, jakintsu bategana bezela, beren bai-ezetako erabayen billa. Nola orain sinistu diteke, arkiturik bi Obispao bata gure errien atayetan, eta bestea Euskal-lurrean, ez zabaltea ayek Ebanjelioa gure lurretan? Itzali zan inenturaz San Fermin Iruñeko Obispo eta Kalaorrako Obispo jaunen zelo aundia beren ikasleen artean, uzten zituztela sei gizaldi luzeetan illunpe eta eriotzaren itzalpean, beren anayak berak! Eulojio santua arritzen zuten, Urdaspal, Leire, Irache, San Millán eta Albeldako bakartegietan¹ zeuden zortzigarren gizaldiko gizon santu ayen artean, etzan arkitzen inor gurutzeari eskuan artu, eta sartu naiko zuanik gure mendietan, Ebanjeliozko azia ereitera, bestegatik ez bazan ere martirioko garaipenaren orde? Au guzia arrazoyaren kontra dagoala, denok ikusten degun gauza da.

Baña ez bakarrik arma oyek dauzkagu gure arrazoyaren alde, oraindik gelditzen zaizkigu beste batzuek. Españiaren barrenetako kristauak, sartzen ziranean euskal-mendietara, Mahomatarren ezpatarren igesi, seguru bezela idukitzen ziran, gure artean billatuko zuten laguntasunaren esperantzarekin; eta indartzen ziran gure guraso portitzen² besoak, gure erlijio santua zapaldu nai zuten moro taldeen kontra.

Naparruako erregeak, beren guda aserreetan moroen kontra, deitzen zizten beren laguntzarako, Gipuzkoatar erlijioetsuai; eta iristen zituzten era onetan, garaipenik ederrenak. Gogangarria da gure anai Antzuelarrok, Garzia Inñigez erregea ill ondorean, Naparruako lurretan moroen kontra, iritzi zuten garaipena: eta ez bakarrik gertatze onek alchatzen du gure anai Gipuzkoatarren izen erlijioetsua, baizik baita ere alchatzen dute, onelako beste asko garaipen ederren siñaleak, zeintzuek diran gure echepurubekoen³ atayen gañean, ikusten ditugun eche armak. Ez dute guchiago alchatzen gure euskaldunen izena, arako kendurik moroai, berak lenago arrapatu zizkiguten erriak, ayen gordetzalla seguruak bezela, euskaldunak ipintzeak; beste gañerako errien eskuetan seguru ez balirake bezela. Orregatik Toledoko erreñuan, Perez, amaseigarren gizaldiaren denboran, beste erri batzuen

(1) Monasterios.

(2) Valerosos.

(3) Solariegas.

artean Balberde eta Alkontas deitzen zitzaizen errietan; Gipuzkoako euskera egiten zan¹.

Baña ainbeste sayatzen diran ezkerok ukatzen, gure antzin antziñako erlijioaren izatea gure artean, esanaz ez dagoala irakasderik² arrazoi onen alde ¿ezingo degu azaldu gure egiaren alde, arrazoi izkribaturen bat? Bai. Fernan Gonzalezek, 939 garren urtean (mendi oye-tan oraindik kristauen arrazarik etzegoan denboran, gure etsayak diotenez) S. Millango bakartegiari egin zion, Gipuzkoa guziaren, doariak, *tota Ipuzcoa*, aditzera ematen digu, kristaua zala gure errian.

Baña gai onetan geyen geyen indartzen gaituan sillua da, Sancho erregearen 1027 garren urteko irakasdea, Moret kondairagillak diotenez.³ Errege onek nai zuan berritzea Iruñeko eleiz-nagusia, eta biur-tu baita ere Obispaduari, moroak 714 garren urtean Iruña artu ondorean, artuta gelditu ziran lenagoko bere eskubide, lur eta lekuak. Elkartu zituan onetarako, bere erreñuko gizonik jakintsu eta zarrenak; baita ere aztertu zituan lenagoko paper argitzalleak, eta oyen guzien laguntzarekin, siñalatu zituan bere irakasde onetan, moroak sartu baño lenago izandu ziran bezela; Gipuzkoan Donostia, Oyartzun, Berastegi, Azeria, Hernani, Seyaz, Iziar eta Iraurgi edo Azpeitiako ibar-rak eta Goyaz Errejillekin. Egun erdiko argia bezin agirian dago bada arrazoi oyekin beste gabe, gure ibar eta mendietan arkitzen zala chit errutsu kristandadea, mahomatarrak etorri baño, asko lenagotikan.

III

Sartu gaitezen orain bete betean gure kondaira erlijioaren eras-terik⁴ argitsu eta ederrean. Euskaldunak azkenekoak izandu giñala Españarren arrear Kristau erlijioan sartzen egia balitzake ere, ez dan bezela, ordaindua⁵ geldituko litzake atzerapen au, gure esnatze erlijiozkoarekin, gizaldi naastu eta negargarri ayetan. Bai, iru gi-zaldi aundietan iraun zuten, gure anaitarteko gerra beldurgarriak: Oñazino eta Ganboinoen izenak gogangarri negargarriak bezela kon-

(1) Mons. Girona. Ensayo de la hist. de la nobleza de los Bascongados pag. 103.

(2) Documento.

(3) Moret, tomo 1 de los Anales. lib. 12. cap. 4. fol. 577.

(4) Epoca.

(5) Compensado.

dairara pasa ziranean: pake ederra biurtu zanean, eskerrak balleraen¹ alegiñai, erritako legeai eta batez ere Arantzazuko amachit santa diz-tiatzalle orren agerteari Aloña mendian, Euskal-errietako laño beltz artunak desegiteko; orduan piztu eta indartu zan geyago eta geyago, iñoiz ez bezela, gure erlijio bedeinkatua Euskal-errian. Euskaldunen zañetako bizitasun guzia, zan emetik aurrera beren erlijio maitea za-baltzeko.

Erljio chit aundikoak ziran, mundu guziaren berri zekiten gure Areizaga eta Urdaneta; Erljio chit aundikoa zan mundu osoari buelta eman-ondorean, irtenik Sevillan ichaz-ontzitik, eleiz nagusira oñ utsik bere lagunakin zuzendu zan Elkano bat: Erljio chit aundikoak ziran, Amerika eta Filipiñas irabazi eta ayetan silluakin jota bezela, erlijio bedeinkatua utzi zuten gure Legazpi, Ibarrek eta Oñatiar Gazteluondo; gaur toki ayek eroriak zorigaiztoan badaude ere, bere zimendu erlijiozkoa galdu dutelako. Erljio chit aundikoak ziran, gure ichas-gizon gerrari portitz, Zubiaurre, Okendo, Errekalde eta beste milla; zeintzuek oñ bat atzera bota gabe, ichas lapur, ingeles eta olandatarren kontra irizten zituzten, beren erlijioaren ordez, zeruak ematen zien laguntzarekin, garaipen miragarriak, eramaten zituztela beren garai-penetako oroipenak, batean Lezoko eleizara, bestean Iziarko edo Arantzazuko ama maitearen oñetara; azkeneko toki onetan ikusten degun bezela, Okendo illezkorrak eramán zuan kañoi bala pisutsu bat. Erljio chit aundikoak ziran, amaseigarren gizaldian erregeen alboan bizi ziran, euskaldun jakintsu eta bertutetsu ayek. Erljiotsuakziran, Flandesen eta Italian gerra garratz eta gogorrek eramán zituzten euskaldunak; Gravelinas eta Pavian, eta beste milla tokietako gudeetan, Ezpañiako bandera gloriz apaindu zuten gure anayak. Oyekgatik esan oi zuan Albako Dukeak, munduan ziran soldadurik portitzenak zirala.

Gure errege erlijioitsu Karlos V garren eta Felipe II garrenak, beren premia guzitan, euskaldunen gañean beren begiak jartzeko, zerbait geyago zeukaten, jatorrizko doayakin gañera. Bizkaitarren izenakin ezagutzen ginduzten erbestekoak, eta begiratzen ziguten begirunez² beterik, erlijio aundiko gizonai bezela; eta orregatik Siziliako Marineo kondairagilla, deadar egitera beartu zan esanaz: «bere denboran etze-

(1) Hermandades.

(2) Respeto.

goala leku erlijotsuagorik, euskaldunena baño.»¹ Egi au agiriago ikusi nai badegu, ez degu begiratze bat bota baño denbora ayetako gure kondaira erlijotsuari. Pakeztuak gerra guziak artu zuan alako indarra erlijioak euskal-jende artean, nun gure erriak biurtu ziran beste Tebaida batean. Orduan sartu ziran emen Dominiko, Agustino, Frantziskano eta Jesuiten ordena erlijotsuak. Probintzia onetan bakarrik zabaldu ziran gizaldi orretan, emezortzi komentu. Orduan alchaziran bakardadean bizi nai zuten emakume bertutezkoentzat, geroz birjiña garbientzat izatera etorri ziran komentu echeak. Orduan berri eta apaindu zituzten gure eleizak, eleiz-nagusien edertasunakin. Orduan desagertu ziran gure mendietatik, sorgiñen batzarre eta jostaera nazkagarriak. Orduan bai orduan alchatu zan gure gurutze santua, ez bakarrik torreetan; baizik baita ere eche-tellatu eta mendi tontorretan, gaur- zorionean ikusten gauden bezela. Ez dirudi besterik, ez bada orduko euskaldunak, lur oyek guziak biurtu nai zituztela al dare batean, beren anima garbiak Jaungoikoari eskeintzeko: eta Jaungoikoak Euskal-erriari zion amodioa agertzeko, erabaitu zuan bere juizio altsuan, sortu zedilla gure artean, bere seme ugarien bidez, protestanteak gure erlijioari iriki ziozkaten zauriak sendatuko zion Abraham berria: Jaungoikoaren etsai guzien kontra zeruko indarrez jantziarik, gudatu bear zuan Matatias berria: Denbora berrietako Jaungoikoaren bialdua, Jesusen lagundeari jayotza emateko: kristan-ejerzituak indartu bear zituan Jaungoikoaren soldadu errutsu eta portitza: Jaunaren aingeru doatsu eta illezkor S. Iñazio Loyolakoa: euskal-jendearen irudipenik ederrena.

Goizeko iñuntz gozoa bezela zetorkion gure Euskal-erriari Jainkozko grazia, eta azaltzen ziran alde guzitatik Jaunaren deyakin apainduak, erlijiosoen bizitza egiteko indarturik; irtetzen zirala emetik gizon izen aundikoak, ala jakindurian nola bertuteetan eta diñaderik altsuenetan, jeronimotar Fr. Juan Alzolaras Kanariasko Patriarka eta Obispoa bezela; Fr. Juan Zumarraga eta Fr. Frantzisko Tolosa frantziskanoak; Antonio Araoz jesuita; Obispo chit argidoratu² on Rodrigo Merkado Zuazola, Oñati erri noble onetako ikasola³ famatu *Sancti Spiritus* deitzen zayonaren fundatzallea; Lorentzo Otadui, Lugo eta

(1) Gironda obra citada, pag. 113.

(2) Ilustrado.

(3) Universidad.

Abilako Obispo izandu zana bezela; eta ala au nola onen aurrekoa ziran erri onetako semeak. Gure misiolariak China eta Japoiria juten ziran, eta an isuritzen zuten beren odol garbia, erlijio santuaren alde, Fr. Tomas Zumarraga, dominikoa, eta Asentzioko S. Martin frantziskanoak bezela; edo billatzen zuten martirioa bide erdian, beren tokitara sartu baño len erejeen esku beltzetan, Plasentziako Esteban Zurraire jesuitak bezela.

Begiratze azkar batekin izandu bada ere, ikusi ditugu Amerika lurrak irabazi zituzten gizon talde argiak; ichas-gizon nagusi portitzak; eleiz-gizon chit jakintsuak; misiolari zelotso eta fundatzalle santu ongi merezituak; eta den denetan azaldu degu, erlijiozko sillu bat, eta euskaldun biotz aundi bat; esan dezakegula arrazoyarekin amaseigarren gizaldia izandu zala, Euskal-erriarentzat, urre-fedezko gizaldia.

Geroztiko gizaldietan ere, ikusten ditugu gure erlijiozko pausoak, lenago bezin azkar ez bada ere, aurrera jun dirala Euskal-errian: eta gizaldi oyen kondaira erlijiozkoan arkitzen ez baditugu ere, len aitatu diran izen ayek bezin aundiak, da gure euskaldunik geyenak, makaldu eta zerbait eroriak gelditu ziralako, dierr¹ guzia bezela: baña alaz guztiaz ere, erlijiozko espiritua beti egondu zan zutik. Rai. oraindik aitatu genzake, geroztiko gizaldietan gure ama-eleiza chit santa, atsegindu zutenen izen doatsuak Migel Aozaraza martiri beneragarria, izandu zan oyetatiko bai; zeñek bere jayotza izan zuan erri onetan: Domingo Erkizia eta Julian Lizardi, martiriak baita ere: Jesusen biotzaganako debozioa aurreneko Españian zabaldu zuten Kardaberaz eta Oyos beneragarriak; eta azkenik santutasunez apaindua izan zan aita Palazios misiolari ospetsua,² zeñ baita ere jayo zan erri onetan, eta jantzirik gero gure ordenako abitu santua, bizitu izan zan pekatarien biurtze miragarrizko ugariak iristen zituala, bere bertuteen ejemplo eta sermoyakin. Oyek guziak ¿zeintzuak ziraden eta nungoak? ja! oyek ziran gure anai euskaldunak eta Gipuzkoako semeak; beraz esan dezakegu amaseigarren gizaldiko gizon erlijiodun ayen fedea, ez dala itzali oraindik Euskal-errian.

Gure erriaren erlijio paregabea progatu dezaket oraindik, esanarekin lenagoko denbora ayetan juten ziran bezela Lezo, Iziar, Begoña, Urkiola, Loyola eta Arantzazuko toki bedekatueta, dijoazela gaur

(1) Nación.

(2) Famoso.

ere fedez eta debozioz beteak. Asko det esatea, gure euskal-lur oyetan iya ez dagoala oñ beteko lekurik, santutu gabe eleiza, ermita edo bide-albo edo mendiren baten gañean dagoan gurutzeagatik. Asko det esatea, gure erlijio maitearen alde, gaur arkitzen dirala chit ugarituak gure artean Ordena erlijiosuak; eta baita ere Amerikako misiolariak datozela prankotan Euskal-errira, euskaldun billa beren ango misio-tarako. Gure izkuntza garbi eta ederrak, zeñek ez daukan blasfemir-kan, gure aiton zar zarrenetatik artu ginduzen oitura garbiak geren jostatzeetarako: emengo ogenik¹ eza, esaterako, beste erri batzuen aldean: itz batean, emen gordetzen diran oitura garbiak ala bakarrean nola agirian, oyek guziak beartzen gaituzte aitortzera, erbesteko asko bezela, esanaz, paregabekoa dala Euskal-erriko donedeia.² Eta egiaz erlijiorik gabe, ezin ditezke iduki oitura garbiak: arrazoi aundiakin zion bada, ez santu batek, ezta ere eleizak; baizik *Rousseau-k* bere Emilio-an, Kant eta bere jarraitzalleak kontrara bazioten ere, «erlijioa aztutzeak, aztu erazitzen diozkala gizonari, bere egin bearrak. Ez det sinisten, zion, izan ditekeala bat bertutetsua, erlijiorik ez badauka». Baña agiriago eta aginte aundiagoarekin agertzen dizkigu Espiritu Santuak liburu donakian;³ Jaungoikoa ukatzearen kalteak. Bein eta berriz esan ondorean fede gabekoaren biotzeko deadarra «ez dago Jaungoikorik» dio aurrera, blasfemi izugarri onek ondorengo gertatze negar-garriagatik «alkidatu eta gorrotogarriak egin ziran beren opatza eta gogoetan, ez dago on egingo duanik, ez eta bat bakarra ere».⁴ Nun nai arkitzen dirala bertutezko lorak, an baita ere erlijioaren eguzkiak, isuritzen du bere berotasun gozoa. Beraz Euskal-erria izanik erbestetarrentzat miragarria, bere onore, ontasun eta oitura garbiakgatik, nai eta nai ez bear du izan gure erriak, erlijio chit aundikoa.

Euskal-erriaren otzedago erlijiozkoaren gañean esan degun guzia, azaldu dezagun oraiñ itz laburretan. Egin degun kondairazko ibillera, izandu da luzea eta zerbait neketsua ere bai, bear genduan argiaren paltaz zuzendu eziñik geren pausoak batetik, eta leku desezagutuetan sartu bear izan geralako bestetik: baña alaz guztiaz ere, chit pozgarriak izandu dira bere ekarrayak.⁵ Ikusi degu, Euskal-erria beti izan-

(1) Crimen.

(2) Religiosidad.

(3) Sagrado.

(4) Salmo 13, v. 1 y 2.

(5) Efectos.

du dala leyala bere aurreko guraso zar guzien agerketa¹ eta otzedagoari jarraitzen; eta Ebanjelioa zabaldu baño lenago ere, beti adorazio eman oi ziola eta maitatu zuala bere egiazko Jaungoikoa. Bere *Lau-buru* adoratuan, profeta baten antzera ezagutzera eman zigula erlijio egiazkoaren urreratzea. Euskal-lurretan idolorik ezak erraztu zuan bere sarrera kristau-federa, alako moduz eze, nun ezin ditekean erazo² iñola ere gertatze aundi orren unea. Baña alaz guztiaz ere, ikusi degu argiro, amargarren gizaldiraño atzeratu nai dutenak gure sarrera erlijio egiazkoan, jartzen dirala bereztar lege guzien kontra, kondaira argiari begiratu ezkeru.

Negargarriak ziran gure erriarentzat era-erdiko denbora ayek; probintzi errien aserreak itotzen zuan kontzientziako deadarra; erlijiozko sentimentuak, illak bezela arkitzen ziran euskaldunen biotzean; ain beste euskal-odol isuritakoaren baoak, illuntzen zuan eguzkia, zerua ikustea galerazteraño. Baña ¡O zeñ ederra eta ikusgarria izandu zan egun sentiaren jayotza, gau beltz eta beldurgarri arren ondorean! Orañarte illak bezela egon ziran sentimentu erlijiozkoak, piztu eta zabaldu ziran alderdi guzitara: jayotzen ziran nun nai bertute eta santutasunezko ispillu ederrak; alako moduz eze, euskal-arrazaren siñalerik ederrena zan, besteak baño erlijio beroagodunak izatea.

Esan dezagun bada arkitzen dala gure artean, erlijiozko otzedagoa. Egi bat da bada eta kontrarik ezin egin lezayokena; Euskal-erria denbora guzitan izandu dala erlijioduna: eta onenbesterekin naikoa da; zergatik ikusten det, ez deztela beste arrazoi premiarik ezagutzeko, zeñ egokida³ aundikoa zaigun elkartze betiko bat, fede erlijiozkoarekin. Euskaldunentzat, otzedagoa da gauzarik donakiena: euskaldunak asko du jakitea, beren gurasoak benetan katoliko eta erlijiodunak izandu zirala: beren aurreko zarrak, etziotela beñere gure ama-eleiza santuari, negar malkorik atera erazi, dotriña gaizto eta erakuste zikiñak zabalduakin; etzirala iñoiz ere elkartu, fede eta erlijiorik gabe-koakin, baizikan kontrara, ayen eritasunetik geyago aldentzeko, ipintzen zituzten ayen kontrako legeak, nola baita ere kristau berri edo mahomatartetik kristauakgana biurtzen ziradenen kontra.⁴ Euskal-

(1) Revelación.

(2) Precisar.

(3) Importancia.

(4) Cuadernode las leyes de 1583.

dun benetakoari asko dio jakiteak katoliko erlijioduna izateko, bear duala eraman gerra garratz eta jarraitu bat, Kristoren soldaduakin batera, eleiza santuaren alboan bere etsayen kontra.

Nik uste det gaurko euskaldunak, ez diotela salkinderik¹ egingo beren kondaira ederrari; eta onela pentsatzeko, arrazoi chit aundia det nere begien aurrean; zergatik ikusten nagoan, biotzari pozaren pozaz negar erazitzen dion ikusgarririk ederrena. Ikusten det euskal-festa oyetan, ematen zayola aurreneko tokia, erlijiozko sentimentuari: ikusten det emen, ots aundiko eleiz-festa pozgarria: ikusten ditut toki santu onetan elkartuak, gure Probintzi onetako Diputadu jaun errespetagarriak, ikasbide chit altsua ematen bere erriari: ikusten det toki eta gai guzitako jendea; Oñatiko semeak berriz, anayak bezela naastuak, albo erritakoakin; itz batean, emen ikusten det Probintzia dena, bere begirune eta biotz guziak otzedago erlijioitsuari eskeintzen. Jarraitu dezagun bada onela, gure aurrekoak iriki ziguten bidetik. Guk bezelako kondaira ederra dutenak, eta erlijiozko zimenduakin indartua: guk bezela ezagutzen dutenak zorionerako bidea, eskerrak otzedago erlijiosoari, ez degu beste erri batzuek doakabetu eta galdu izan oi dituzten bide berri galgarriak artu bearrik. Katoliko eta erlijiodunak egiaz izatea utziko bagenduke, ez giñake izango euskaldun benetakoak: gure otzedago erlijioitsua, zeñ dan beste guzien artean egokidaena, galduko bagenduke, zentzurik gabeak izango giñake. Beste otzedagoak bakarrik elkartzen dute gure lenagoa oraingoakin; baña otzedago erlijioitsuak elkartzen du lenagoa oraingoakin eta oraingoa gerokoakin: da Zeruko atea iriki bear digun esperantza gozoa: euskaldun benetako guziok elkartu bear gaituana egunen batean santuen bizi lekuan iñoiz ez geyago aldentzeko.

Ala gerta dedilla.



(1) Traición.